

2.Merkatuaren segmentazioa:

Lehendabizi, gure produktua udaletxera saldu beharko genuke, gure produktua hiri batentzako delako. Baina publikoak direnez, hiritarrak erabiliko dituzte, eta hiritarren erabileraren arabera, beste udal batzuek erasiko dizkigute. Hau kontuan hartuta, bi bezero mota desberdin ditugu: alde batetik, udala, honek dirua jarriko du; beste bezeroak hiritarrak dira, hauek erabilera zuzena egingo dute. Laburbilduz, gure xede publikoa udalak dira, horrek merkatu segmentua masiboa dela erakusten du, hiri oso batean ekoizteko dago diseinatua, behar komunak dituzten hiritarrentzat, bere bizikleta seguru edukitzeko nahia eta kezka duten txirrindularientzako, hain zuzen ere.

Ezaugarriak:

- Hiritarrek bizikleta erabiltzen dute.
- Udala hiritarren segurtasunaz arduratzen da.
- Udala ingurumenaz eta naturaz kezkatzen da.

Bezero garrantzitzuenak hiri handiak izango lirateke, bizikletarem erabilera zabaldua duten hiriak batik bat, hiriak orokorrean bezero normal bezala hartuta. Hilean hiri handi bat edo bi txiki izan ahalko genituzke, kontuan izanda hilean 400 lote inguru ekoiztu ahal ditugula.